



FARMAZIA – ARABAKO ESI-A
Lehen Mailako Farmazia

e-mail.: farmacia.primariaosiaraba@osakidetza.eus

2024ko Azaroa

AEMPS: INTSULINEN MERKATURATZE-ETENA ETA HORNIDURA-ARAZOAK

1

[Jarraitu irakurtzen](#)

AEMPS: GIZA ERABILERAKO MEDIKAMENTUEN SEGURTASUNA

- Azetazolamida: biriketako edema ez-kardiogenikoen kasu larriak
- Atomoxetina: sindrome serotoninergikoa eta portaera erasokorra, etsaitasuna edo labilitate emozionala
- Hidroxikarbamida: interferentzia glukosa etengabe kontrolatzeko sistemekin
- Metilprednisolona bide sistemikoan: paralisi periodiko tirotoxikoa (PPT)
- Beste kontrako erreakzio batzuk: budesonida: hipopotasemia, terazosina: sudur-kongestioa, giza papilomaren aurkako txerto nonabalentea (errekonbinantea, adsorbatua): nodulua injekzio-gunean

2

[Jarraitu irakurtzen](#)

ARGITALPEN INTERESGARRIAK

- Euskadiko zahar-egoitzetarako gida farmakoterapeutikoa
- INFAC buletina: “Alzheimer-en gaixotasuna: eguneratzea”
- Aztertuko den medikamentu berria: “Finerenona giltzurruneko gaixotasun kronikoaren tratamenduan”
- Sano y salvo bloga: Balio gutxiko praktikak: Lown institutuak praktika horiek saihesteko egin dituen ekarpenak
- Pinceladas del medicamento buletina:
 - Beta-blokeatzaileak erabiltzea miokardio-infartuaren ostean eta eiekzio-frakzio gordearekin?
 - Noiz kendu beharko lirateke medikamentu kardiobaskularrak?
- DTB buletina: Odol-jariorako arriskua aho bidezko antikoagulatzaileekin eta serotoninina birkaptatzeko inhibitzaile selektiboekin (ISRS)
- Txertoek mikrobioen aurkako erresistentzia eta antibiotikoen erabilera murrizteko orduan duten inpaktuaren balioespena: OMEren txosten teknikoa

3

[Jarraitu irakurtzen](#)

BERRITASUNAK FORMULAZIO MAGISTRALEAN

- Lugol fuerte soluzioa (0,5 g iodo / 1 g potasio ioduro / ur destilatua csp 100 ml)

4

[Jarraitu irakurtzen](#)

MEDIKAMENTUEN HORNIDURA-GABEZIAK ETA -BERREZARPENAK

5

[Jarraitu irakurtzen](#)

6. LEHEN MAILAKO ARRETA KO ZENTROETAN ERABILTZEKO SENDAGAIK

6

[Jarraitu irakurtzen](#)

AEMPSeK informazio-ohar batean jakinarazi duenez ([2024/08](#)), pixkanaka hainbat intsulina merkaturatzeari utziko diote; aurreikuspenen arabera, 2025eko urtarrilean hasi eta 2025eko abendura bitartean. Lehenengo hiruhilekoan, Innolet gailua erabiltzen duten eta gutxiengo erabilera duten medikamentuak merkaturatzeari utziko diote: [Actrapid Innolet](#) (intsulina azkarra), [Mixtard 30 Innolet](#) (intsulina bifasikoa: azkarra eta luzarokoa) eta [Levemir Innolet](#) (detemir intsulina) 100 U/ml, soluzio injektagarria aurrez kargatutako luman, 3 ml-ko 5 luma.

AEMPSeK, halaber, adierazi du [Apidra 100 U/ml](#) (glulisina intsulina) saltzeari utziko diotela; zehazki, soluzio injektagarria 10 ml-ko bialean aurkezpena. Apidraren beste aurkezpen batzuk (luma, kartutxoak) eskuragarri izaten jarraituko dute.

Presbiden, egoera horren berri ematen da aipatutako aurkezpenetarako, preskripzio-hasieretan nahiz luzapenetan.

AEMPS lanean ari da bestelako aukerak merkaturatzen dituzten laborategiekin, hornidura indartu dezaten eta, horrela, gaur egun produktu horiek estaltzen duten eskaria bete ahal izan dezaten.

Bestetik, AEMPSeK ohartarazi du honako aspart intsulina hauek hornidura-arazoak dauzkatela 2023az geroztik (aurreikuspenen arabera, 2025aren hasieran konponduko dira arazook): [Fiasp 100 U/ml Flextouch](#), [Novorapid Flexpen 100 U/ml](#), soluzio injektagarria aurrez kargatutako luman, 3 ml-ko 5 luma, eta [Novorapid Penfill, 100 U/ml](#), soluzio injektagarria kartutxoan, 3 ml-ko 5 kartutxo.

Laborategi titularra modu kontrolatuan ari da eskuragarri dauden aleak banatzen, Espainia osoan banaketa orekatua izan dadin. Alternatiba gisara, Fiasp eta Novorapid-en beste aurkezpen batzuk daude eskuragarri.

Informazio gehiago [hemen](#).

[HASIERA-ra Itzuli](#)

AEMPSen medikamentuen segurtasunari buruzko 2024ko uztaila-abuztuko buletina argitaratu da, eta bertatik informazio hau nabarmentzen da:

Azetazolamida: biriketako edema ez-kardiogenikoen kasu larriak jakinarazi dira hau hartu ondoren, baita dosi bakarra hartuta ere (hartu eta minutu edo ordu batzuetara). Susmoa egonez gero, azetazolamida kendu, eta euskarri-tratamendua eman. Biriketako edema ez-kardiogenikoa gaineratu da maiztasun ezezaguneko kontrako erreakzio gisa.

Atomoxetina: sindrome serotoninergikoa eta portaera erasokorra, etsaitasuna edo labilitate emozionala

Atomoxetina aldi berean beste medikamentu serotoninergiko batzuekin (IRSN, ISRS), triptanekin, opioideekin eta antidepressibo trizikliko eta tetraziklikoekin erabili ondoren, sindrome serotoninergikoa (aldaketak egoera mentalean, ezegonkortasun autonomikoa, anomalia neuromuskularrak eta/edo sintoma gastrointestinalak) agertu dela jakinarazi da.

Eraso fisikoen kasu larriak, mehatxuzko jokaerak eta beste batzuei min emateko pentsamenduak ikusi dira paziente pediatrikoengan. Aholkatu senitarteko eta zaintzaileei berehala jakinarazi diezaiotela osasun-langile bati, gogo-aldartean edo jokaera-patroietan aldaketa esanguratsuak ikusten badituzte; bereziki, tratamendua hasi edo dosia aldatu ondoren.

Halaber, bruxismoa gaineratu da kontrako erreakzio gisa.

Hidroxi-karbamida: interferentzia glukosa-etengabe kontrolatzeko sistemekin

Hidroxi-karbamidak glukosa-etengabe monitorizatzeko sistema jakin batzuen (MCG) glukosa-sentsoreen emaitzak igo ditzake faltsuki, eta horrek hipogluzemia ekar dezake ematen den intsulina-dosia glukosa-sentsoreen emaitzetan oinarritzen bada.

Glukosa-etengabe monitorizatzeko MCG sistemak eta hidroxi-karbamida aldi berean erabili behar badira, glukosa kontrolatzeko bestelako metodo batzuk kontuan izan.

Metilprednisolona bide sistemikoan: paralisi periodiko tirotoxiakoa (PPT) gerta daiteke hipertiroidismoa duten eta metilprednisolonak eragindako hipopotasemia duten pazienteengan.

Muskuluen ahuldade-zantzu eta -sintomen aurrean, PPT susmoa izanez gero, batez ere hipertiroidismoa duten pazienteengan, berehala kontrolatu odoleko potasio-mailak, eta era egokian tratatu hauek maila normaletara itzultzeko.

Farmakozaintzako datuak ebaluatu ondoren identifikatutako beste kontrako erreakzio batzuk

Budesonida: hipopotasemia, **Terazosina:** sudur-kongestioa, **Giza papilomaren aurkako txerto nonabalentea (errekonbinantea, adsorbatua):** nodulua injekzio-gunean.

Informazio gehiago nahi izanez gero, AEMPSren hileko segurtasun-buletina kontsultatu daiteke, 2024ko urriaren 2an argitaratutakoa, [esteka honetan](#).

[HASIERA-ra Itzuli](#)

3 ARGITALPEN INTERESGARRIAK

Euskadiko zahar-egoitzetarako gida farmakoterapeutikoa

2024ko irailean, Euskadiko zahar-egoitzetarako gida farmakoterapeutiko berria argitaratu da. Adostasun-dokumentu bat da, eta geriatría-eremuko pertsonen osasun-arazo nagusienetarako gomendatzen diren medikamentuen zerrenda jasotzen du, preskripzio egokirako irizpideak jarraituz egina. Helburua preskripzioa egiten laguntzeko tresna gisa erabiltzea da, erraz kontsultatzeko modukoa eta ebidentzia zientifikoan oinarritua.

Formatuan lor daiteke dokumentu osoa, [esteka](#) honetan edo QR kode honen bidez:



INFAC buletina: “Alzheimer-en gaixotasuna: eguneratzea”

Alzheimer-en gaixotasunaren tratamendua eta farmakoen depreskripzioa jorratzea da Infac buletin honen helburua. Era berean, gaixotasun horren arrisku-faktoreak, diagnostikoa eta estadifikazioa deskribatzen dira.

Dokumentuetarako estekak:

- [Buletina](#)
 - [Aurkezpena](#)
-

Aztertuko den medikamentu berria: “Finerenona giltzurruneko gaixotasun kronikoaren tratamenduan”

Euskadiko Medikamentu Berrien Ebaluazio Batzordeak egina:

- [Fitxa](#)
- [Ebaluazio-txostena \(IPT AEMPS\)](#)
- [Publizitatearen Kritika](#)

[Hemen](#) irakur daitezke medikamentu berrien ebaluazio-fitxa guztiak.

Sano y salvo bloga: Balio gutxiko praktikak: Lown institutuak praktika horiek saihesteko egin dituen ekarpenak

Lown institutuak, pazienteek behar duten arreta guztia jasotzea eta behar ez duten arreta bakar bat ere ez jasotzea lortzeko eta, horrela, osasun-sistemaren segurtasuna eta eraginkortasuna hobetzeko xedearekin, bere proiektu edo lan-ildo nagusietatik hiru aurreratu ditu. Horien artean, medikamentuen gainkarga nabarmentzen dugu.

2020ko urtarrilean, [Medikamentuen Gainkarga Desagerrarazteko Ekintza Plana](#) argitaratu zuen, non medikazio-gainkargaren kausa nagusiak jorratzeko soluzio integralak jasotzen baitira, [plana](#) egituratzen duten bost ekintza-ildoetarako txosten eta laguntza-materialekin batera:

1. “Preskripzio-kontrolak” ezartzea: medikamentuak berrikusteko gomendioak, era egokian depreskribatzeko aukera ematen dutenak.
2. Kontzientziatzea: pazienteak, medikuak eta herritarrak oro har, medikamentu ugari erabiltzeak ekar ditzakeen kalteen inguruan kontzientziatzeko gomendioak.
3. Arretagunean informazioa hobetzea: medikuei modu seguruan preskribatu eta depreskribatzeko behar duten informazioa emateko gomendioak.
4. Osasun-langileak hezi eta trebatzea: profesionalak gaitzeko gomendioak medikazio-gainkarga murriztu dezaten.
5. Farmazia-industriaren eragina murriztea

Informazio gehiago [esteka](#) honetan.

Pinceladas del medicamento buletina:

Beta-blokeatzaileak erabiltzea miokardio-infartuaren ostean eta eiekzio-frakzio gordearekin?

Buletin honetan, REDUCE-AMI saiakuntza klinikoaren ondorioak jasotzen dira. Bada, saiakuntza kliniko horretan ikusi zenez, beta-blokeatzaile epe luzerako tratamenduak (metoprolola lehenengo aukera gisa, edo bisoprolola alternatiba gisa) ez zuen hilkortasuna asko jaitsi miokardio-infartua eta eiekzio-frakzio gordea (>50%) zituzten pazienteengan, ezta berriro miokardio-infartua edukitzeko arriskua ere.

Noiz kendu beharko lirateke medikamentu kardiobaskularrak?

Buletinean, halaber, European Heart Journal-en artikulua bat dago, non medikamentu kardiobaskularrak depreskribatzeko irizpideak proposatzen baitira, kalte posibleak edo onurarik eza saihesteko edo aukera hobeak edukitzeko xedez.

Informazio gehiago [esteka](#) honetan eskuragarri.

DTB buletina: Odol-jariorako arriskua aho bidezko antikoagulatzaileekin eta serotonina birkaptatzeko inhibitzaile selektiboekin (ISRS)

Behaketazko azterketa batek fibrilazio aurikularrerako aho bidezko antikoagulatzaileak hartzen ari ziren pazienteak aintzat hartuz, serotonina birkaptatzeko inhibitzaile selektiboak (ISRS) eta aho bidezko antikoagulatzaileak aldi berean erabilia odol-jariorako arriskua handiagoa ote den ebaluatu zuen.

Ikerketaren egileek ondorioztatu dutenez, urdail-hesteetako eta garezur barneko odol-jariorako arriskua handiagoa da bi farmakoak aldi berean erabiltzen badira, aho bidezko antikoagulatzaileak bakarrik dituen tratamenduarekin baino.

Informazio gehiago [esteka](#) honetan.

Txertoek mikrobioen aurkako erresistentzia eta antibiotikoen erabilera murrizteko orduan duten inpaktuaren balioespena: OMEren txosten teknikoa

Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) txosten honetan, txertoek mikrobioen aurkako erresistentzia murrizteko duten ahalmena ebaluatzen da. Txostenean nabarmentzen denez, txertoak erreminta erabakigarriak dira infekzioak prebenitzeko eta andui erresistenteen hedapena eteteko, bai eta, horrenbestez, antibiotikoekiko mendekotasuna murrizteko ere.

24 patogenori zuzendutako 44 txerto ebaluatu ditu, baimenduta daudenak nahiz garapen bidean daudenak. Txerto horiek mikrobioen aurkako erresistentziarekin, antibiotikoen erabilerarekin eta kostu ekonomikoekin lotutako osasun-emaizetan izan dezaketen inpaktua balioesten du. Informazio gehiago [esteka](#) honetan

[HASIERA-ra Itzuli](#)

4 BERRITASUNAK FORMULAZIO MAGISTRALEAN

Formula magistral hau kendu dute e-Rezeta sistematik:

- 140565 Lugol fuerte soluzioa (0,5 g iodo / 1 g potasio ioduro /ur destilatua csp 100 ml).

E-rezetan sartzen diren formula magistralen zerrenda eta haien finantzaketa-baldintzak [esteka](#) honetan kontsultatu daitezke.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

5 MEDIKAMENTUEN HORNIDURA-GABEZIAK ETA -BERREZARPENAK

Hona hemen hilabete honetako HORNIDURA-GABEZIArik garrantzitsuenak:


- Benerva® 300 mg 20 estalitako konp. (tiamina)
- Cefadroxilo Desgen® eta Duracef® 500 mg 28 kap. gogor, Duracef® 250 mg/5 ml aho bidezko suspentsiorako ahutsa, 60 ml-ko ontzi 1 (zefadroxilo monohidratoa)
- Ipratropio bromuro Cipla® 20 mcg inhalaziorako soluzioa presiodun ontzian, 200 dosi (ipratropio bromuroa)
- Lamisil® 10 mg/g larruazala lainoztatzeke soluzioa 30 ml-ko ontzi 1 (terbinafina)
- Manidon retard® 180 mg askapen luzeko 60 konp. (berapamiloa)
- Siccafluid® 2,5 mg/g gel oftalmikoa 0,5 g-ko 30 eta 60 unidosiko ontziak (karbomeroa)
- Synalar® ótico, 10 ml-ko ontzi 1 (fluozinolona azetonidoa)
- Urbason® 16 mg 30 konp. (metilprednisolona)
- Zinnat® 250 mg/5 ml aho bidezko suspentsiorako granulatu, 50 ml-ko ontzi 1 (zefuroxima)

HORNIDURA-BERREZARPENAK:

- Atomoxetina Cinfa® EFG 18 mg 28 kap. gogor (atomoxetina hidrokloruroa)
 - Clindamicina Aristo® 100 mg 3 obulu (klindamizina)
 - Clonazepam Neuraxpharm® 1 mg 60 konp. (klonazepama)
 - Clotrimazol Gine-Canesmed® EFG 100 mg 6 konp. baginalak (klotrimazola)
 - Colircusi Gentamicina® 3 mg/ml kolirioa (gentamizina)
 - Enanplus® 75 mg/25 mg aho bidezko soluziorako granulatu, 20 zorro (dexketoprofenoa/tramadola)
 - Megefren® 160 mg 30 konp. (megestrol azetatoa)
-

- Osteopor® 830 mg filmaz estalitako 40 konp. (hidroxiapatita)
- Roxitromicina Sandoz® EFG 300 mg filmaz estalitako 10 konp. (roxitromizina)
- Sandostatin® 50 mcg/ml soluzio injektagarria eta perfusiorako, 1 ml-ko 5 anpoila (oktreotida)
- Trandate® 100 mg eta 200 mg 30 konp. (labetalola)

PRESBIDEn “Hornidura ezak” botoia eskuragarri dago, “Preskripzioen kontsulta” pantailaren beheko aldean, hornikuntza-gabeziei buruzko informazio erabilgarria erakusten duena.



Hornidura-gabeziak esteka honetan kontsulta daitezke:

- PRESBIDE; [Medikamentuan hornidura-gabezien taula](#)
- CIMA-AEMPS; [Hornidura-arazoak dituzten medikamentuen zerrendarako sarbidea](#)

[HASIERA-ra Itzuli](#)

6

LEHEN MAILAKO ARRETAKE ZENTROETAN ERABILTZEKO SENDAGAIK

Arabako ESIko osasun-zentroek eta EAGk hainbat sendagai dituzte, biltegiari eska diezazkioketenak. Medikazio horren zerrenda berrikusi da, eta **Lehen Mailako Arretako zentroetan erabiltzeko sendagaiak** dokumentua egin da. Dokumentu horrek honako hauek ezartzen ditu: zentroetan "in situ" emateko sendagaien zerrenda, sendagaien biltegiatze- eta kontserbazio-arauak, osasun-zentroetako botikinetan, geldialdietarako orgetan, etxeko abisuetarako maletatxoetan eskuragarri dauden sendagaien ezaugarriak, eta abar. Era berean, sendagaiak eskatzeko prozedura azaltzen du, eta zehazten du hemendik aurrera nola eskatu beharko diren medikamentuak indikazio espezifikoetarako eta dispensazio-baldintza bereziei lotutakoetarako, formulario espezifiko baten bidez. Informazio guztia hemen aurki daiteke: [Medikamentuak lehen mailako arretako zentroetan](#)

[HASIERA-ra Itzuli](#)

Lehen Mailako Arretako Farmazia

ARABAKO ESI-A: farmacia.primariaosiaraba@osakidetza.eus

Farmazialariak: Arantza Hernández, Javier Martínez, Inés San José eta María Prieto.



Argitalpen honen edukia Osakidetza Lehen Mailako Arretako farmazialariek egindako hileroko buletinetik egokitu da FarmaHitzak buletinak Osakidetza intransetan daude eskuragarri hurrengo [estekaren](#) bidez